



**ARANTZako UDALA**

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7  
31790 ARANTZA (Nafarroa)  
☎ 948 634 005  
📠 948 928 919  
arantza.udala@arantza.eus  
www.arantza.eus

## 2018KO AZAROAREN SEKO BILERAREN AKTA

**Organoa:** Udalbatza.  
**Batzarra:** Ohiko bilera.  
**Deialdia:** Lehenengoa.  
**Eguna:** 2018.11.05.  
**Ordua:** Arratsaldeko 18:00etan.  
**Tokia:** Herriko Etxeko areto nagusia.

### **Bertaratuak:**

Alkatea: Juan Miguel Almandoz Mitxelena jn

### **Zinegotziak:**

Juan M. Gonzalez Burguete jn.  
Ander Almandoz Indakoetxea jn.  
Jose Fco. Javier Mitxelena Ordoki jn.  
Iñigo Sarrias Zoco jn.

### **Bertaratu ez direnak:**

Mentxu Peña Lizarazu and., gaixotasun bajarekin dagoelako.  
Igor Ugalde Salazar jn., lanagatik.

### **Idazkaria:**

M. Jose Larraioz Ariztegi and.

### **Aztergaiak:**

- 1.-Azkeneko aktaren onespena.
- 2.-Juan Miguel Almandoz Mitxelena jauna: oihan probetxamendu eskaera.
- 3.-Candido Apecechea Lucambio jauna: oihan probetxamendu eskaera.
- 4.-Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa: azaroaren 25eko egunari buruzko adierazpen instituzionala.
- 5.- Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa: berdintasuna eta LGTBQIri buruzko adierazpen instituzionala.
- 6.-Alkatearen ebazpenak.
- 7.-Eskaerak eta galderak.

### **1.-AZKENEKO AKTAREN ONESPENA.**

2018ko urriaren 8an egindako bileraren akta ikusi ondoren, aho batez, ONARTU DUTE.

**Juan Miguel Almandoz Mitxelena jauna ateri da bilera aretotik.  
Ander Almandoz Indakoetxea jauna ordezkatzeko dio.**

## **2.-JUAN MIGUEL ALMANDOZ MITXELENA JAUNA: OIHAN PROBETXAMENDU ESKAERA.**

Ikusirik Juan Miguel Almandoz Mitxelena jaunak aurkeztutako eskaera, Eguzkialdea auzoko Arbotako Malda alderdian dauden zuhaitzen probetxamendua egiteko (entresaka), 1. poligonoko 124. eta 130. lurzatieta.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Juan Miguel Almandoz Mitxelena jaunari eskatutako oihan probetxamendu eskaerari aldeko txostena ematea, probetxamendu hasi aurretik balorazioaren %15eko fidantza aurkezteko baldintza pean.

2) Eskaera Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Departamentura bidaltzea.

3) Eskatzaileari jakinaraztea baimen hau hirugarren baten baimenak baldintzatzen ahal duela.

4) Eskatzaileari jakinaraztea probetxamendua egin ondoren itxidura kentzeko asmoa izanik, gomendatzen dela bildu eta bertan ez uztea.

5) Akordio hau eskatzaileari jakinaraztea.

**Juan Miguel Almandoz Mitxelena jauna itzuli da bilera aretora.**

## **3.-CANDIDO APECECHEA LUCAMBIO JAUNA: OIHAN PROBETXAMENDUA ESKAERA.**

Ikusirik Candido Apecechea Lucambio jaunak aurkeztutako eskaera, Goiko Borda eta Arrautxa alderdian dauden haritz amerikarren probetxamendua egiteko (entresaka), 1. poligonoko 165. eta 99. lurzatieta.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Candido Apecechea Lucambio jaunari eskatutako oihan probetxamendu eskaerari aldeko txostena ematea, probetxamendu hasi aurretik balorazioaren %15eko fidantza aurkezteko baldintza pean.

2) Eskaera Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Departamentura bidaltzea.

3) Eskatzaileari jakinaraztea baimen hau hirugarren baten baimenak baldintzatzen ahal duela.

4) Eskatzaileari jakinaraztea probetxamendua egin ondoren itxidura kentzeko asmoa izanik, gomendatzen dela bildu eta bertan ez uztea.

5) Akordio hau eskatzaileari jakinaraztea.

## **4.-NAFARROAKO UDAL ETA KONTZEJUEK FEDERAZIOA: AZAROAREN 25EKO EGUNARI BURUZKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA.**

Ikusirik Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak igorritako gonbidapena eta adierazpena, azaroaren 25ean emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko nazioarteko eguna dela eta.

Ikusirik adierazpenaren edukia:

“Azaroaren 25ero, indarkeria matxistaren egiturazko izaera nabarmentzen dugu, horixe baita gizonezkoek emakumeengan dituzten botere-harreman asimetrikoen adierazpenetako bat. Egitura patriarkalari lotzen zaion indarkeria da, emakume ta gizonen



## ARANTZako UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7  
31790 ARANTZA (Nafarroa)  
☎ 948 634 005  
☎ 948 928 919  
arantza.udala@arantza.eus  
www.arantza.eus

arteko desberdinkeriak sortzen eta birsortzen dituen bizitzaren esparru guztietan eta adin-tarte orotan.

Genero-desparekotasuna gaur egun gertatzen den giza eskubideen urraketarik iraunkorra den heinean, aurtan hil dituzten emakumeen kopurua bihurtu nahi dugu arretagune, egunez egun etengabeko jario baten moduan entzuten dugun hori.

Garai batean oinarritzko aldarrikapena izan bazen ere, emakumeen kontrako indarkeria dela medio hil dituzten emakumeak zenbatzea ohiko bihurtu da. Datu kuantitatiboak edukitzea lorpena izan zen, arazoaren larritasuna neurtzeko bide eman baitzuen, eta hartara, arazoa desagerrarazteko politikak diseinatu eta baliabideak bideratzeko.

Aitzitik, hil dituzten emakumeen zenbaketa amaigabearekin ohituak garela dirudi, are, sobera ohituak, ematen baitu jada ohikoa dela guretzat ia egunero gizon batek emakumea bat hiltzea. Ia-ia egunero izaten dugu erasotuak, mehatxatuak diren emakumeen berri, beren askatasuna mugaturik ikusi eta beldurrez bizitzera kondenatuak direnena.

Hori, gizarte demokratikoetan, onartezina, jasanezina eta eramangaitza da: EZ DIRA KOPURUAK BESTERIK. GEURE BIZIAK DIRA.

Zenbaki bakoitzaren gibelean, emakume bati etendako bizia dago, proiektu eta ilusioz beteriko bizia, sekula berriz ez dena.

Urtero, urtarrilaren 1ean, emakumeen aurkako indarkeriagatik hil dituzten emakumeen kontagailua zerora jartzen da, eta horrek galarazten du ikustea genero-indarkeriak, gure gizartean den desparekotasunaren adierazpen ankerrenak, 947 emakumeren biziak eraman dituela estatu espainiarrean 2003az geroztik, eraildako emakumeen zenbaketa egiten hasi zenetik, alegia.

Horregatik, modu kolektiboan, toki-entitateek honako hau ADIERAZTEN DUGU:

-GURE GAITZESPENA, emakumeek edozein esparru eta testuingurutan pairatzen dituzten askotariko diskriminazioek eragindako indarkeria sexista mota orori.

-GURE KONPROMISOA, Administrazio Publiko garen aldetik, modu aktiboan lanean jarraitzeko desparekotasunen aurka, zaurgarritasun-egoeren eta emakume zein neskatoen aurkako indarkeria-egoeren sorburu baitira; eta gonbita egin nahi diegu hala gobernuei eta erakunde publiko nola nazioarteko entitateei eta gizarte zibilari, gogoeta egin eta konpromisoak har ditzaten.

-GURE ELKARTASUNA, eraso edo hil dituzten emakumei, indarkeria sexistari aurre egin behar dioten emakume eta neskatoei.

-ETA HERRITAR GUZTIAK GONBIDATU NAHI DITUGU jarrai dezaten emakumeen kontrako indarkeria gaitzesten eta hura deuseztatzeko konpromisoa adierazten, baita patriarkatuaren kontrol mota guztiak eta emakumei haien askatasuna eta autonomia erabiltzen eragozten dieten muga eta baldintza guztiak salatzen ere, eta, hartara, azaroaren 25ean antolatzen diren jarduera guztietan parte har dezaten”.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Aipatutako adierazpena onartzea.

2) Akordio hau Nafarroako Udala eta Kontzejuen Federazioari jakinaraztea.

## **5.- NAFARROAKO UDAL ETA KONTZEJUEEN FEDERAZIOA: IRUÑEKO UDALEKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA.**

Ikusirik Iruñeko Udalak igorritako adierazpena, urriaren 23an izandako erailketa dela eta.

Ikusirik adierazpenaren edukia:

“Iruñeko Udaleko talde guztiek, Iruñeko udalerriko bizilagun baten urriaren 23ko ustezko erailketa dela eta, adierazi nahi dugu guztiz arbuiatzen eta/edo gaitzesten dugula inon den ekintzarik makurren hori, alegia, pertsona bat hiltzea emakumea izate hutsagatik. Emakumeen kontrako indarkeriak emakume oro ukitzen du, edozein dela ere adina, egoera sozioekonomikoa edo nazionalitatea.

Berretsi nahi dugu emakumeen kontrako indarkeriak botere-harremanak dituela oinarri, zeinek, alde sinbolikoan zein materialean, gizonak paratzen baitituzte emakumeen gainetik eta helburu baitute emakumeak gizonen mende edukitzea. Indarkeria sexista horiek era eta jarrera ugaritan agertzen dira . Ezinbestekoa eta premiazkoa da horietako bakoitza atzematea, ikusgai jartzea eta arbuiatu eta/edo gaitzestea, adierazpen sexista ororen prebentzioari erantzun orokorra emateko. Izan ere, emakumeak ikaratuz eta gizonen ustezko nagusitasunaren adierazpideen bidez gorpuzten dira indarkeria sexista horiek.

Hori dela eta, Iruñeko Udalak honako hau adierazi nahi du:

-Arbuioa eta/edo gaitzespena agertu nahi dugu Iruñeko bizilagun horren ustezko hilketaren aurrean, eta babesa eta elkartasuna erakutsi familiari eta hildakoaren ingurukoei une latz hauetan.

-Beste behin berretsi nahi dugu arbuiatu eta/edo gaitzesten ditugula gure gizarteko eraso, indarkeria edo jarrera sexista guztiak, eta konpromisoa hartzen dugula eraso sexistak desagerrarazteko, segurtasuna hobetzeko eta emakumei askatasuna bermatzeko ingurune guzti-guztietan.

-Erakunde publikoak eta herritar aktiboak garen aldetik, gizona izan ala emakumea izan, engaiatu beharra dugu eraso sexisten kontra, eta xede hori bete beharrez lan egin.

-Gizartea premiau nahi dugu kultur eredia aldatzera, erasotzailea babestu eta emakumea errudun hartzen duelako eta emakumei eskatzen dielako piropoak, eragozpenak edo jazarpenak ulertzeko, festetan edo usantzetan arruntak direlakoan.

-Herritarrak gonbidatu nahi ditugu soraio ez egotera indarkeria eta eraso sexisten aurrean, eta aldarrikatzen dugu emakumeek eskubidea dutela beren harremanetan, gorpuztean eta sexualitatean erabakitzeko.

-Gogora ekarri nahi dugu denak ez duela balio eta denok eskubidea dugula segurtasunez eta askatasunez mugitzeko hirian barna.

-Iruñeko Udalak arbuiatu eta/edo gaitzesten du indarkeria edo eraso sexista oro eta irmoki nahiz aktiboki salatzen ditu halako jarrerak. Hori dela eta, minutu bateko isilunera deitzen du gaur, urriak 24 (asteazkena), Udal plazan, eguerdiko 12:00etan.

-Azkenik, bat egiten dugu Iruñean egiten diren adierazpenekin eta deialdiekin, eta Iruñeko herritarrak gonbidatzen ditugu mugimendu feministak deitzen dituen protesta ekitaldietan parte hartzera.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Aipatutako adierazpena onartzea.
- 2) Akordio hau Iruñeko Udalarari jakinaraztea.



**ARANTZako UDALA**

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7  
31790 ARANTZA (Nafarroa)  
☎ 948 634 005  
☎ 948 928 919  
arantza.udala@arantza.eus  
www.arantza.eus

#### **6.-ALKATEAREN EBAZPENAK.**

Alkateak azken bileratik emandako ebazpenen berri eman du, 2018ko 128. ebazpenetik 138. ebazpena arte.

#### **7.-ESKAERAK ETA GALDERAK.**

Ez dira egin.

**Gai zerrendatik kanpo eta, aho batez, legeak eskatzen duen gehiengo izanik, ondorengo gaiak eztabaidatu dira:**

#### **8.-EUSKARALDIA.**

Ikusirik 2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra euskaraz aritzeko prestatutako ekimena, EUSKARALDIA izenekoa, euskal hiztunen hizkuntza ohituretan eragin eta haien arteko harreman sareetan euskara gehiago erabiltzeko helburuarekin.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Aipatutako ekimena onartzea.

#### **9.- ARANTZAKO GURASO ELKARTEA: DIRU LAGUNTZA ESKAERA.**

Ikusirik Arantzako Guraso Elkarteak aurkeztutako idatzia, 2019ko aurrekontuan partida bat izateko eskatuz Eguberrietako eta bestetako haurren ekitaldietako gastuen erdia ordaintzeko.

Ikusirik argitu dela gastua 600,00 euroko izanen dela.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Aipatutako eskaera onartzea eta gastuen erdia (300,00 euro) Udalan gain hartzea, egindako gastu guztiak justifikatzeko baldintza pean.
- 2) Akordio hau Arantzako Guraso Elkarteari jakinaraztea.

Bertzerik gabe, arratsaldeko 21:30ak izanik, bilera amaitutzat jo dugu eta eztabaidatu eta erabakitakoa jasota geratzeko, agiri hau egin dut neronek, idazkariak, egiaztatuta.

O.E. ALKATEAK,  
Juan Miguel Almandoz Mitxelena jn.



*(Handwritten signature in blue ink)*

